

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- Gure bezeroak:

Bi bezero talde ditugu, lehenengoak, haien lokalak alokatu nahi dituzten pertsonak izango dira. Bigarrenak, Durangaldeko gazteak izango dira, ohikoenak, 15 eta 22 urtekoak. Horregatik, merkatu-nitxoa da gure merkatuaren segmentazioa. Bi bezero talde ditugu eta talde bakoitzak bezero oso zehatzak eta bereiztuak dira. Bezero talde bakoitzarekin dugun harremana bezero taldeari egokituta egon behar da eta. Lokalen jabeek gure esku jarriko dute haien lokala alokatzeko ardura, gu izango gara gazteekin hitz egiteko arduradunak, prezioa eta arauak azaltzeko arduradunak, baina erabaki garrantzitsuak hartzerako orduan bezeroak izango dira beti azken erabakia hartzen dutenak eta guri baimena eman beharko digutenak. Beste aldetik, gazteekin izango dugun harremana guztiz ezberdina izango da. Haien kabuz egingo dituzte lokalaren lehenengo bilaketak, hau da, aplikazioan sartuz koadrila bakoitzak haien lokalerako nahi dituzten ezaugarriak bilatuko dituzte eta aplikazioak haien eskaerara gehiago urbiltzen diren lokalak erakutsiko dizkie. Pausu hori egin eta gero, gurekin hitz egin beharko dute nahi dituzten lokalak ikusi ahal izateko eta hortik aurrera guk lagunduko diegu haiek izan ahal dituzten zalantza edo arazo guztiekin.

- Gure bezeroen ezaugarriak:

Gure lehenengo bezero taldea, hau da, haien lokalak alokatu nahi dutenak; pertsona helduak izango dira eta dirua irabazteko asmoarekin jarriko dute lokala gure esku. Pertsona horiek lokal bat edo gehiago alokatzeko asmoa izango dute eta gure lana izango da lokal horiek gazte taldeen artean eskaintzea eta talde onena aukeratzea lokala alokatu dezaten eta ondo zaindu dezaten. Beste aldetik, Durangaldeko gazteak inmobiliaria munduan ezjakintsuak izango dira ziurrenik, horregatik beharko dute gure laguntza. Lokala alokatzeko asmoarekin kontaktatuko dute gurekin eta gazte talde bakoitzak haien lokalerako nahi dituzten ezaugarriak kontuan hartuta erabaki beharko dugu zeintzuk lokal izango diren hoberenak haientzat eta, azkenik, haiek erabakiko dute ados badaude ala ez eta eskaintzen dizkiegun aukeren artean zein nahiago duten.

